

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

BISITAK ETA IBILALDIAK

[Museoen Nazioarteko Eguna eta Europako Gaua](#)

Nafarroako Museoa, Karlismoaren Museoa, Julio Caro Baroja Museoa, Oteiza Fundazio Museoa

2018/05/17 - 2018/05/20

Osteguna, ostirala, larunbata eta igandea

Foru-titulartasuneko hiru museoek bat egingo dute Museoen Nazioarteko Egunarekin, maiatzaren 18an, urtero legez, museoek beren komunitateekin eta ingurunearekin dituzten loturak nabarmentzea xede duen programazio berezi baten eskutik, "Museo hiperkonektatuak. Ikuspegi berriak. Publiko berriak" lelopean. Publikoekin konexio berri eta erakargarriak sortu nahi ditugu horrela. Eskaintzak bisita gidatuak, haurrentzako tailerrak, arrasto-jolasak, hitzaldiak eta dokumentalen proiektzioa barne hartzen ditu.

[Pasaporteak ¡Museatu! eta bidaiatu](#)

Museoak eta bildumak

2018/04/20 - 2018/10/20

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmagarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatu badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

[Bisitak](#)

Nafarroako Museoa

Igandea / 12:30h

Bisita gidatuak "Danok Taldea. 1966-1967. Modernitate osatugabea" erakusketara, Angel Macías eta Josune Ilundainen eskutik. Gaztelaniaz

[Katedraleko klaustroaren lanak](#)

Iruñeko katedrala

Igandea / 10:00, 11:00, 12:00h

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

ERAKUSKETAK

Gamazadaren 125. urteurrena

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.

2018/04/02 - 2018/05/31

La Gamazada izenez ezagututako gertakari historikoen hasieraren 125. mendeurrenaren haritik, haiei buruzko dokumentuen gaineko erakusketa, formatu txikikoa, antolatu du Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, hilean behingo erakusketa-programaren barruan.

“Gamazadaren 125. urteurrena” apiril eta maiatzean zehar egongo da ikusgai, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren egoitzan, 09:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera, eta 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, asteburu eta jaiegunetan.

Makotu

Jorge Oteiza Fundazio Museoa

Erakusketa. 2018ko martxoak 22 – ekainak 3

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Museo Sarea eta Eguesibarko Udala

Asier Mendizabal (Ordizia, 1973) artistak, azken urteotan, Jorge Oteizaren legaturako eta haren eskultura-proiektuan sinbolikoa eraikitzeko modurako hurbilketa kritikoa proposatzen duen obra multzoa egin du. Horren bitartez zalantzan jartzen ditu modernitatearen amaieran eskultorikoa irudikatzeke mekanismoak.

“Danok Taldea. 1966-1967”

Nafarroako Museoa

2018/03/10 - 2018/05/27

Nafarroako Museoak “Danok Taldea. 1966-1967: Modernitate osatugabea” erakusketa eskainiko du, Nafarroako garai hartako arte-munduko 27 artistaren 40 lanez osatua. Danok taldearen bat izango ziren Nafarroako artisten lanek osatzen dute erakusketa hein handi batean: José Ulibarrena, Isabel Baquedano, Julio Martín Caro, José M.^a Ascunce, Gloria Ferrer, José Antonio Eslava, Xabier Morrás, Jesús Lasterra, César Muñoz Sola, Salvador Beunza, Juan Miguel Echeverría, Pedro Osés (zeinen obra bat erakusten den, Juan José Aquerretarekin elkarlanean egina), Eugenio Menaya, Narciso Rota, Miguel Echauri, Mariano Sinués eta Pedro Manterola.

Zabalik

Nafarroako liburutegia

2018/04/18 - 2018/05/31

UPNA EN ABIERTO - NUP ZABALIK

Aurkezpen ekitaldia apirilaren 18an, 19:00etan, solasaldi-bisita gidatuaren bitartez erakusketa aretoan bertan.

Erakustaldiaren ordutegia:

10:00etatik 14:30etara eta 16:30etatik 20:30etara

(Larunbatean 13:00ak arte)

HAURRENTZAKO AISIA

[Ongi etorri ipuinetara](#)

Nafarroako Liburutegia. Haurrentzako liburutegia
Asteazkena / 18:00etan.

Ipuin-kontalaria: boz gorako irakurraldia.
"Giraffes Can't Dance", Giles Andreaarena.
"The Gruffalo", Julia Donaldsonena.
Taryn Torres boluntarioaren eskutik.
Saioa ingelesez
3 urtetik gorakoentzat.

KONFERENTZIAK

[Calcuta se declina en femenino](#)

Nafarroako Liburutegia (1. Aretoan)
Astelehena / 19.00etan

Ana Briongos.
"Bidaiariak. Emakumeak on the road" zikloaren baitan.

[Taisen Deshimaru y el budismo Zen en Occidente](#)

Nafarroako Liburutegia (Proiektzio aretoan)
Asteartea / 18.00etan

Alfonso Ufano & Antonio Aranaren hitzaldia.
"Espiritualtasunaren koloreak" zikloaren baitan.

KONTZERTUAK

[Gregory Porter](#)

Baluarte (Areto Nagusia)
Asteazkena / 20.00etan

Nat King Cole & me
Baluarte Fundazioaren Denboraldia
2014 urtean Grammy Saria lortu zuen Gregory Porter gaur egun mundu mailan jazz artista entzutetsuenetariko bat da. Liquid Spirit eta Take Me To The Alley bere aurreko lanekin milioika kopia saldu ostean, abeslari eta musikagile estatubatuarrak plazaratu berri duen Nat King Cole & me CDa Baluarten aurkeztuko du, jazz pianista famatuari omenaldi pertsonala.

TAILERRAK

[Ikerketa proiektuak garatzeko egoitza](#)

Huarte Arte Garaikideko Zentroa
2018/04/30 - 2018/09/30

Komisariotzaren inguruko ikerketa proiektuak garatzeko bi egoitza deialdi luzatzen ditu Uharte Zentroak (bata, lekuko agenteei zuzendua, eta bestea, bertakoak ez direnentzat). Helburua, praktika honen alderdiak Nafarroan zehar barreiatzea da.

[Zeharkako estetikak | Aisialdiko ekosistemak](#)

Huarte Zentroa

2018/04/21 - 2018/06/11

Egoitza artistikorako deialdia eta Uharte, Atarrabia eta Burlata udalerrien testuinguru soziala kontuan hartuko duen proiektu baten garapena.

[Toisoiaren ebasketa, escape room-ean](#)

Karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)

2018/05/18 - 2018/10/14

Karlismoaren Museoak dei egiten dizue parte hartzera Toisoiaren ebasketa, escape room-ean. Museoen Nazioarteko Egun eta Gauaren karietara egingen da, 2018ko maiatzaren 18an, eta irekita egonen da 2018ko urriaren 10era arte.

ZINEMA

[Columbus](#)

Nafarroako Filmoteka

Asteazkena / 20.00etan

Hiri bat da film honen protagonista. Jin, gizon korear bat, Columbusen (India) harrapatutako aurkituko du bere burua, koman dagoen bere aita zaintzearen. Bere bizitza guztiz aldatuko da bere egoera berean dagoen neska bat ezagutzerakoan. Casey du izena. Honek, unibertsitatea utzi behar izan du drogazalea den ama bere errehabilitazio prozesuan laguntzeko. Biek amets beraren alde egingo dute: euren egoera pertsonala eta gurasoen arazoak gainditu eta haien bidea jarraitzeko askatasuna eskuratzea.

Jesús Leache Resano-k aurkezten du

Zuzendaritza eta gidioia: Kogonada

[Art and Craft](#)

Nafarroako Filmoteka

Osteguna / 20.00etan

Mark Landis Estatu Batuetako arte faltsutzailerik emankorrena da seguruenik. 30 urteetan zehar estatu osoko museoetako arduradunei ziria sartu die, XV. Mendetik Picasso bitarterako lanak faltsutuz.

[Fahrenheit 451](#)

Nafarroako Filmoteka

Ostirala / 20.00etan

Filma beharbada jada atzean utzi digun etorkizun batean kokatzen da (hasiera batean, 2010 ondorengo gizartea deskribatzen zuen). Honetan, suhiltzaileen lana jada ez da suteak hiltzea, liburuak erretzea baizik. Gobernuaren arabera, irakurtzeak zoriotsu izatea eragozten du, gizon-emakumeak pentsatzera eta bizitza aztertzerara bultzatzen baititu, antsietatea eraginez.

[ZIRKOA](#)

Opus

Ostirala / 20.00etan

Circa, australiar zirku konpainia.

Brisbanetik, Australiatik, zirku garaikidearen ikuspegi berri eta ausarta iritsiko zaigu. Gorputzen, argiaren, soinuaren eta trebetasunen arteko nahasketa. Akrobaziak eta mugimendua osotasun batean nahasten diren tokia. Giza gorputzaren adierazpen aukeren ospakizuna, muturretara eramana. Opus indar itzela, birtuositatea eta poesia duen lana da. Hamalau akrobatik eta hari-laukote batek Dmitri Shostakovich errusiar musikagilearen musika ospatuko dute. Lan berritzailea da, ahalmen handikoa, Les Echos Frantziako egunkariaren arabera "gorena... monumentua, musikala eta koreografikoa".